



**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
[arantza.udala@arantza.eu](mailto:arantza.udala@arantza.eu)  
[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

## 2016KO MAIATZAREN 30EKO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Bilera berezia.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2016.05.30.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-2016ko ekainaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideen hautaketa.
- 3.-Unai Azpiroz Nazabal jauna: Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera.
- 4.- Herriko trafikoari buruz.
- 5.-Plataforma 28Jeko adierazpen proposamenaren onespena.
- 6.-Nafarroako Parlamentuak onartutako oroimen historikoaren inguruko adierazpen instituzionala.
- 7:-Herriko mendiko oihan probetxamenduak
- 8.-Alkatearen ebazpenak.
- 9.- Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2016ko maiatzaren 6an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE., aldaketa honekin: 14. puntua ez da aho batez hartu, Igor Ugalde Salazar jaunaren kontrako botoarekin baizik.

## **2.-2016KO EKAINAREN 26KO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN HAUTAKETA.**

2016ko ekainaren 26an izanen diren Gorte Nagusietako Hauteskundeak direla eta, mahaikideak hautatu behar dira.

Indarrean dagoen Hauteskunde Erregimen Orokorari buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoren adierazten diren hautesleak izan dira izendatuak zehazten diren karguetarako:

### **-TITULARRAK:**

- Mahaiburua: Begoña Telletxea Mutuberria andrea.
- 1. Mahaikidea: Erramun San Juan Zabaleta jauna.
- 2. Mahaikidea: Iratxe Madariaga Arocena andrea.

### **-ORDEZKOAK:**

- Mahaiburuaren 1. ordezkoa: Aitziber Alberdi de la Fuente andrea.
- Mahaiburuaren 2. ordezkoa: Santiago Ratero Grande jauna.
- 1. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Ana Maeztu Villanueva andrea.
- 1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: M.Coro Apecechea Aizpuru andrea.
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Bautista Oteiza Amigorena jauna.
- 2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Miren Arantza Otegui Oyarzabal andrea.

## **3.-UNAI AZPIROZ NAZABAL JN.: ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ESKAERA.**

Ikusirik Unai Azpiroz Nazabal jaunak aurkeztutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera (Lur ez Urbanizagarrirako araudien 10. artikulua aldatzeko) eta eskatutako eranskina.

Kontuan hartuz aldaketaren edukiaren aldaketa xehekatua dela.

Ikusirik Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79. artikulua eta honen edukia.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Hasiera batean onestea Unai Azpiroz Nazabal jaunak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.

2)Espedientea hilabete batez jendaurrean paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaraturiko egunkarietan jarritako ediktuen bidez.

## **4.- HERRIKO TRAFIKOARI BURUZ.**

Herrian hainbat aldietan ikusi da ez direla trafikoko marrak eta seinaleak errespetatzen eta ibilgailuak aparkatzen direla horiek kontuan hartu gabe.

Hori dela eta Alkateak adierazi du Foruzaingoa pasa dela herritik eta isuna jarri arauak bete ez direnean.

Denak ados agertu dira.

## **5.-PLATAFORMA 28JEKO ADIERAZPEN PROPOSAMENAREN ONESPENA.**

Ikusirik Ekainaren 28ko plataformak aurkeztutako proposamena.



## ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantza HOMOFOBIA, TRANSFOBIA, LESBOFOBIA, BIFOBIA eta INTERFOBIARIK gabeko udalerrri deklaratzeari.

2) Udalerrri honetako herriak eta demokraziaren arabera hautatutako bere ordezkariak kanporatu nahi dugu Arantzatik pertsonen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta duintasunaren gutxiespen oro, edozein dela ere pertsonen sexu aukera eta genero orientazioa. Uste dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren osagaia eta ardatza dela hori, eta elkarbizitza baketsua eta orekatua lortzeko bidea.

3) Sexu aukeragatik edo genero identitateagatik inor erasotzen edo gutxiesten dutenek jakin dezatela herri honek ez dituela onartzen. Eta beren izaera sexualagatik edo genero identitateagatik erasoia eta gutxiespena jasan dutenek, jakin dezatela badutela Udal honen eta bere erakundearen elkartasuna

### **6.-NAFARROAKO PARLAMENTUAK ONARTUTAKO OROIMEN HISTORIKOAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Ikusirik Nafarroako Parlamentuak onartutako oroimen historikoaren inguruko adierazpen instituzionala.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako adierazpen instituzionala onartzea, eta, konkretuki, ondorengo puntuak:  
-babesa ematea Iruñeko Udalak abian jarri duen ekimenari eta aurkeztuko duen kereilari, horien bitartez 1936ko kolpe militarren eta ondorengo diktaduraren errepresioa eta egindako krimen guztiak ikertuak izan daitezzen.

-dei egitea ekimen honekin bat egin nahiko luketen erakunde, talde eta herritar guztiak, haien lekukotasunaren edo dokumentazioaren bitartez, kereila prestatzeko lanetan lagun dezaten. Halaber, dei egiten die Nafarroako Toki Entitateei, haien udalerrietako herritarrei eragin zien neurrian, Iruñeko Udalak abiatu duen ekimenaren antzekoak ere abia ditzaten, besteak beste instrukzioko epaitegietan kereilak jarritz.

### **7:-HERRIKO MENDIKO OIHAN PROBETXAMENDUAK.**

Udalak herri mendiko ondorengo probetxamenduak egin nahi ditu (entresaka) enkatean saltzeko:

- 6. poligonoko 1. N lur zatian (pinu insignis).
- 6. poligonoko 2. D lur zatian (pinu insignis).
- 6. poligonoko 7. D lur zatian (pinu insignis).
- 6. poligonoko 1. M lur zatian (pinu larizio).
- 6. poligonoko 1. O lur zatian (pinu larizio).
- 1. poligonoko 22. E lur zatian (pinu larizio).
- 1. poligonoko 14. A lur zatia (pinu larizio).
- 1. poligonoko 14. B lur zatia (pinu larizio).
- 1. poligonoko 9. A lur zatia (pinu insignis).
- 1. poligonoko 10. A lur zatia (pinu insignis).
- 1. poligonoko 7. B lur zatia (pinu douglas).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuari baimena eskatzea aipatutako probetxamenduak egiteko.

### **8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du 2016ko 69 ebazpenetik 79. ebazpena arte.

### **9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**

### **10.- ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA: BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Udalak, 2016ko martxoaren 4an egindako bileran, hasiera batez onartu zuen Arantzako Arau Subsidiarioen lurzoru ez urbanizagarriko 17.3, 18. eta 19. artikulua, eraikinen ordenantza orokorraren 18., 21., 52., 53. eta 54. artikulua eta Arantzako arautegi orokorraren 21. artikulua aldatzea hasiera batez.

Aldaketa jendaurrean egon da (2016ko martxoaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 55. alean eta prentsan ere) eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 81. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Behin betikoz onartzea Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.
- 2) Espedientea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea aldaketa honen berri emanez

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

